



LAREKI OLANO familia

OLANO ETXEBERRI Urtsu-Erreka auzoko etxea da. Inguruko parajeen izenean artean *Apatxe-ko gaztiñari* dago.

Etxejabe izan dira beti bertakoak. Etxea 1928an egin zuten aitona-amonek eta hargin lanetan *Biandetxe* ibili zen. Harria Ataungo harrobitik ekarri zuten, idien atzean gurdia jarrita.

Larraitzerako bidea egin aurretik, etxe ondoko zubitik zen bidea *Kalbarioeta*, *Marrotxe* eta *Peatzetarako*, eta hori aprobetxatuta egin zuten aitona Olano Etxeberri. Bestaldetik, berriz, beste bide bat zegoen, *Xagueta* izenekoa, eta hortik joaten zen *Emakumane*, *Olei* eta *Teleitxo* baserrietara.

Aitona, Joan Olano, Juliana Usabiagarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten: Joxepa, Maritxu, Frantzisko, Damian eta Iñaxio.

Aitona, Joan Olano, artzain ibili zen. *Oidui* inguruan zuten saroia, eta amona Juliana Usabiaga Ordiziako azokara joaten zen, Karteroren karroan, gazta eta arkumeekin. Bazituzten gainera bi behi, ardiak, txerriak, untxiak eta oiloak ere, baita etxerako erabiltzen zuten baratzea ere.

Maritxu, alaba, Joxe Miel Larekirekin ezkondu zen 1964an. Lareki Hernanikoa zen, *Portu* etxekoa. Hernanin ezkondu ziren eta otordua Ereñotzu auzoan egin zuten.

Seme bat izan zuten, Jexux Mari.

Joxe Miel Larekik Hernanin egin zuten lana aurrena, gero Legorretara etorri zen, eta azkenean *Yani* muelle fabrikari hasi zen lanean, Zaldibin bertan. Aurre-

tik itsasontzian lan egina zen eta mundua ere izango zuen. Bakailaotan ere izana zen Ternuan eta hotz handiak pasea izango zen, eskuetako azkazalak galtzeraino.

Joxe Miel Lareki gaztetan bizikletan ibiltzen zen. Zaldibiko Zentraleko Salaberria, Martin Erauskin eta Ordiziako Monterorekin. Espainiako Txapelketa batean parte hartu zuen. Orduko hartan Bahamontesek irabazi eta Joxe Mielek laugarren egin zuen, azkeneko hirugarren kilometroan pintxazoa egin zitzaiolako.

Jexux Mari semea Edurne Etxartekin ezkondu zen 2014an. Berako *Elorribala* baserrikoa da Edurne, Lazkaoxan egin zuten otordua eta Olano Etxeberrin bizi dira.

Informazio emailak:
Jexux Mari Lareki eta Edurne Etxart

Pasadizoak

Behia ezkutuan

Antza denez, Jexus Marik 18 urte zituela, aita Joxe Mielek eta biek erosi dute behia amari ezer esan gabe, ezkutuan. Nonbait eduki behar eta eraman dute lagun baten baserrira. Etxeko belarra aprobetxatu nahi, ordea, eta egin dituzte hiru zuhatz. Ama Maritxu erabat harrিতuta, zertarako behar ote zuten hainbeste belar. Azkenean esan egin behar emazteari eta hantxe komeriak.



Frantzisko, Inazio, Maritxu, Joxepa / Joan Olano (aitona), Juliana Usabiaga (amona) eta Damian.



Maritxu Olano eta Joxe Miel Lareki. (1964)



Maritxuren lagun bat, Joxepa, Maritxu / Juliana (amona), Maria Jexux (Joxeparen alaba) eta Joan Olano (aitona). (1964)



Maritxu Olano, Joxe Miel Lareki, Juliana (amona) / Jexux Mari, semea. (1975)



Edurne Etxart eta Jexux Mari Lareki, Berako Telletxea etxearen aurrean.